

Igande honetan
Goikoplazan,
goizeko 10:00etan
hasi eta 14:00ak arte

2017ko ekainaren 30a, 530 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

BIGARREN ESKUKO AZOKA

Giro ona eta parte hartze handia aurtengo San Juan jaietan

Herritarren parte hartzea handia izan da, eta gaueko eskaintzak inguruko herrietako biztanleak erakarri ditu.

Jai Batzordeak datorren uztailaren 3rako balorazioa egiteko bilera deitu du, baina hango ondorioak entzun aurretik aurtengo jaiak parte hartzaileak eta arrakastatsuak izan direla esateko hainbat adierazle aurki daitezke. Parte hartzean gorantz doaz jaiak, proposamenak egin eta lantzen dituzten elkarteak geroz eta gehiago izanik. Sociedad Andoainarra elkartearen lehen danborrada edota Santa Krutz erretirodunen elkartearen patata tortilla eta ardo dastaketa horren adibide izan dira. Egunez gaueko andoainarrak kalera irten dira jaiak gozatzera, Goikoplaza eta Nafarroa plaza jaiaren erdigunea izanik.



San Juan suaren ikuspegia udaletxeko balkoitik.

Bestalde, azken urteetan gaueko emanaldiak indartzeko ahaleginak bere fruituak eman ditu. Gozategi, Reincidentes, Tio Teronen Semeak eta Gati-bu taldearen emanaldietara inguruko herrietako musikazaleak hurbildu dira. Bereziki nabarmena izan zen hori larun-

bat gauean, Gatiburen emanaldian.

Aiurrik jaietan balorazio ezberdinak eskatu ditu. **Eloy Artolazabal** herri eragilea patata tortilla eta ardo dastaketan izandako arrakastarekin pozarren zegoen: "Ez genuen uste hainbeste jende bilduko zenik.

70 tortilla eskaini ditugu, horietatik 26 lehiaketara aurkeztu direnak. Lanez gainezka ibili gara une batzuetan. Hilabete da antolatzen hasi ginela, Andoainarra elkartearekin batera. Ekitaldia gainerako elkarte gastronomikoei esker izan da posible".

Esti Mujika Kultura zinegotzia ere, pozik agertu zen jaiak amaitzeaz zirela: "Egunero jende asko ibili da kalean, eta herri eragileen inplikazioa oso handia izan da. Ekintza berriak ikusi ahal izan ditugu aurtengo jaietan, oso arrakastatsuak izan direnak. Oso pozik egoteko arrazoiak ditugu".

Udal gobernu taldeak, astearte eguerdian argitara eman zuen oharrean, "Itzelak izan dira aurtengo San Juan jaiak" zioen goiburuan. Normaltasunean igaro izana azpimarratu zuen: "Jai egunetan ez da inolako isturik egon. Elkarbizitzan eta elkarrekiko errespetuan oinarritu dira festak".

[GEHIGARRI BEREZIA]

Kaletxikiko jaiak asteburuan

Sanjuanak amaituta, Andoaingo auzuneetan bata bestearen atzetik etorriko dira festak. Ostegun honetan Kaletxikiko jaiak hasiko dira. Igandera bitarte hitzordua ugari antolatuta dago. Aurtengo jaiak, gainera, Kandida emakumezkoa izango da.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

Juanjo Arregiri elkarrizketa



Añorga, Urnieta, Euskal Selekzioa, eta orain Real...

Juanjo Arregi. Urriaren Dublino partida pare bat jokatu genituen emakumeen Euskal Selekzioarekin, eta ziklo bat bukatutzat eman nuen kategoria guztietako entrenatzaile izan eta gero. Apirilean deitu zidan Realak lehen aldiz, isilean aritu gara talde teknikoak, jokalariek, azpiegiturak, taldearen joko moldea eta beste aztertzen, eta orain itxi dugu kontratua, Gorka Alvarez bigarren entrenatzaile izendatu ostean.

Nolakoa izan da hilabete eta erdi hau?


J.A. Lehen eskaintzarekin tripa nahastu zitzaizkidan, eta burua berotu. Asko hausnartu dut: Liga nolakoa den, ze baliabide eta jakintza duan... Azkenean futbola berdina da toki batean edo beste batean. Eskarmentua hartu dut han eta hemen, jakituria aberatsa, eta taldea hazten laguntzeko konpromisoa hartzea erabaki dugu, zutabe sendo batekin: lan asko egin, nahi duguna lortzeko.

[KIROLAK, 7. ORRIALDEA]

Urnietako kiroldegi berria eraikitzekeo egitasmoa aurrera doa

Agintaldiko inbertsio estrategikoa aurrera doa, urrats berriak emanez.

Urnietako kiroldegi birmoldatzeko hamabost proposamen jaso eta gero, Sabai Arkitektoak SL enpresak jaso du kiroldegi berriaren egitasmoa prestatzeko aukera. Herritarrek proposamen garailea ezagutu zezaten, Udalak joan zen ostegunean aurkezpen ekitaldia antolatu zuen, Lekaion. Proposamena erabat lantzeko 5-6 hilabete geratzen dira eta oraindik orain herritarrek ekarpenak egin ditzakete. Horretarako herritarrek uztaila-



Egitasmoa oso aurreratua egon arren, ekarpenak egiteko aukera zabalik dago hurrengo uztailaren 7ra arte.

ren 7ra arteko epea dute. Bertan bulegoetan ekarpenak egin ditzakete. Proiektua idatzi os-

tean, obra egiteko lehiaketa aterako da. Udalak egindako aurreikuspenen arabera, lanak

2018ko udaberrian hasiko lirakete, bi urteko iraupenarekin.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Transexualitatea lehen pertsonan azalduko dute

“Transexualitatea lehen pertsonan eta sexualitatearen ikuspuntutik” hitzaldia eskainiko dute **Chrysaliseko** orde-

kari batek eta **Errespetuz** taldeko gizon transexual batek.

Ekainak 29, osteguna. 18:30. Lekaio.

Udako aisialdia Udalaren eta Gaztelekuaren artean



Udabenturako ikastaroa, artxiboko irudian.

Aste honetan abiatu da Udalak eta Gaztelekuak antolatutako Udako oporraldiari dagokion programazioa. Ostegun honetan herri kirol saioa egingo dute, arratsal-

dez. Eta ostiralean ur jolasak. Datorren asterako irteera ezberdinak antolatu dituzte Leitzarar aldera, Aqualandera, zinemara edota Santa Klarara.

Zanpatuz taldearekin Pirinioetara

Zanpatuz mendi elkarteak Huescako Pirinioetara irteera antolatu du uztailaren 15-16rako. **Astun** eta **Artouste** eski estazioen arteko bidea egingo dute larunbatean, **Midi d'Ossau** erpin ikusgarria inguratuz. Iganderako, aldiz, **Sarra** urtegia eta **Respomuso** aterpe arterainokoa izango da txangoa, **Arriel** lakuetatik behera itzultzeko. **Pueyo de Jaca** herriko aterpean egingo da larunbateko afaria, gaua, gosaria eta bazkaria. Herrira buelta igande iluntzerako espero

da. Sei bat orduko buelta izango da bi egunetan, eta bidean jan eta edan beharreak norberak eraman beharko du. 2.000 metrotik gora egiten du bideak, arropa egokia eramatea komeni da, beraz. Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 70 euro. 50 lagunentzako tokia gorde da, zerrenda handiagoa bada itxaron-zerrenda zabalduko da. Xauxar, Kantoi eta Ikasminen eman ahal izango da izena, uztailaren 3ra bitarte.

Donosti Cup partidak Urnietako futbol zelaian

Ikasleen oporraldia hastearekin batera, Donosti Cup nazioarteko futbol txapelketa jokatzen da Donostian eta Beterri-Buruntzako hainbat futbol zelaitan. Urnietan, esaterako, datorren astelehenean oste-

gunera hainbat partida jokatuko dira. Lehen partida goizteko 10:00etan izango da Blagnac eta Martutene taldeen artean. Lau egunetan 33 partida jokatuko dira Urnietan.

Landutako egitasmoa aurkeztu zuten jendaurrean, hilaren 22an

Puntako instalakuntza Urnietako kirolarientzat



Osatu, handitu eta hobetu egingo dute Urnietako kiroldegia, itxura erabat berria emanez.

Kiroldegia eraberritzea izango da Urnietako azpiegitura mailako egitasmorik handiena, datozen urteetan. Kiroldegi berriaren proiektua lantzeko Sabai Arkitektoak SL enpresak 5-6 hilabeteko epea izango du, eta aurreko astean jendaurreko aurkezpenan adierazi bezala, herritaren azken proposamenak jasotzeko eta aztertzeko prest daude. Udalak zabalduko ohararen arabera, “oraindik aldaketa batzuk txertatu daitezke promosomean, eta, hortaz, Udalak epe bat ireki du datorren uztailaren 7ra bitarte herritarrek proiektua hobetzeko ekarpenak egin ditzaten”.


Horretarako, Bertan bulego-joan eta eskaera orria bete beharko dute.

EGITASMOA LANDU OBRAREKIN HASI AURRETIK

Proiektua idatzi ostean, erakuntza lana egiteko lehiaketa aterako da. Lehiaketa irabazten duen enpresak lanei ekin beharko lioke datorren urteko udaberriari. Bidean ustekabekorik ez bada, eraikitzeko lanek bi urteko iraupena izango dute, eta, beraz, 2020. urteko udaberrietik aurrera urnietarreko instalazio berri eta modernoak izango dituen kiroldegiaz gozatzeko aukera izango dute.

IKASTAROAK KIROLDEGIAN

Urnietako Udalak, egitasmo estrategikoen aurkezpenan adierazi bezala, kiroldegiko lanek iraun bitartean ikastaroak eskaintzeko asmoari eutsi nahi dio: “Udala Kiroldegian gaur egun eskaintzen diren ikastaro guztiak mantentzen saiatuko da. Horretarako, futbol zelaiaren inguruan dagoen atletismoko pista modulu aurrefabrikatu batzuk ezarriko dira. Modulu horiek egungo aretoen neurri antzekoak izango dituzte, eta, beraz, ikastaroekin normaltasun osoz jarraituko da aurrera”. Leku berean eta zerbitzuen kalitate ia berbera eskaintzen jarraitu nahi dute.



Egitasmoa oso aurreratua egon arren, ekarpenak egiteko aukera zabalik dago hurrengo uztailaren 7ra arte.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

SAN JUAN GAUA ETA AKELARREA EKAINAREN 23AN

Solstizio gau paregabea



Txanbolin eta Anabas taldeko kideak Plazido Muxika plazan, sua piztu zen lehen uneetan. Gau majikoaren argazkiak eta bideoa ikusgai daude aiurri.eus webgunean.



Funky dantza taldeko kideek saioa eskaini zuten ilunabarrean, Akelarreari ekin aurretik.



Buruntzantzan taldeko kideek San Juan plazatik Plazido Muxika plazara kalejiraren erritmoa ipini zuten.



Sorgin ugari agertu zen plazara, helduak eta gazteak.



Dantzari gazteen emanaldia, aurtengo saioko berrikuntza.



Ikusgarria izan zen haurtxoek eskaini zuten dantza, Akelarrean.

KALETXIKIKO JAIK ASTEBURU HONETAN

Kandida agertuko da aurtengo jaietan, Kandidori atsedeen emanez

Ainara Lasa izango da aurtengo Kandida, ostegunean hasi eta igandera arte luzatuko diren Kaletxiko jaietan. Lasa auzoko jaiak oso oso barrutik bizitzen duen familiako kidea da.

Kandidaren paperan lehenbiziko emakumea den arren, horri baino garrantzi handiagoa ematen dio hartu duen erantzukizunari txukun erantzuteari.

Zer dela-eta Kandida?

Ainara Lasa: Jai batzordekoek proposatu izan zidaten aurreko urteren batean, baina ezezkia erantzun nien orduan. Aurten ere etorri zaizkit, eta zer arraio! Batzuetan ez da komeni bi aldiz pentsatzen ibiltzea! Egia da nire burua Kandidaren laruan jarrita irudikatzen hasten naizenean, halako beldur eszenikoa sartzen zaidala gorputzean. Baina horren gainetik, auzoko festei zor diedan maitasuna dago, eta aurrera!

Aurreneko aldia da emakume bat Kandida gisa...

A.L.: Bai, baina igual ez zaio hainbesteko garrantzia eman behar horri. Berdin-berdin joango da zeremonia guztia, eta jaiak ere betiko izaera alaitsuari eta herrikoiari eutsiko diote, hori esan beharrik ez dago. Aldatuko dena, Kandidaren janzkera izango da. Baserri giroko jantzi dotorea eramango dut soinean, eta kito. Ez dira ikusiko gizonak eraman ohi dituzten kapela edo janzkera beltzik, noski.

Kaletxikitar peto-petoe zaitugu burutik oineraino...

A.L.: Nire aiton-amonak azken urtetan erre eta bota den etxean bizitu ziren betidanik. Nire gurasoak ere auzoan jaiotakoak dira, eta ez dira bertatik atera. Neu ere hemengo-hemengoa naiz; ezkondu arren, bertan bizi naiz familiarekin. Kaletxikitarraren nortasuna barru-barruan daramagu guztiok.

Zer dauka berezitik auzoak?

A.L.: Andoaingo beste auzo gehienetan ez bezala, Kaletxikin betiko familiak bizitzen jarraitzen dugu; ez da hainbesteko aldaketarik egon bizilagunen artean. Kaletxikin bizi dena oso kaletxikitarra sentitzen da, eta bertan ia bizimodua guztia egiteko gai da. Bestalde, egundoko konfiantza dago auzotarren artean. Harremanak oso gertukoak dauzkagu, eta giro jator hori segituan antzematen da egunero bizimoduan, gauzak antolatzeke orduan, eta nolaz ez, San Pedro jaietan.

Zein dituzu ekitaldirik gogokoena jaietan, eta zergatik?

A.L.: Danborrada eta sagardo festa bereziko nituzke. Danborradan beti hartu izan dut parte, mistoa denetik. Ekitaldi sakratua da niretzat baina behin egin behar izan nuen kale, haurdun nengoelako.



Lehenbiziko urtean ama eta biok atera ginen eta oso gau hunkigarria izan zen biontzat. Danborrada barrutik bizitzeak badauka aparteko zera hori. Sagardo egunean, berriz, Nekane izebarekin txorizo-pintxoak egosten edo-eta aitarekin sagardoa zerbitzea egokitzen zait; izugarri gozaten dut mostradorearen atzealdean. Izan ere, lasatarrok gogoko dugu saltsaren erdian ibiltzea, eta ekitaldi horretan argi erakusten dugu.

Nolanahi ere, aurten, garai bateko ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol partida berreskuratu dute, xexena erdian dutela, eta ekitaldi hori ere aipatu nahi nuke, barreak egiteko eta arratsalde on bat pasatzeko aukera emango digulako seguruenik.

Zer esango zenieke Kaletxikikoak ez diren irakurleei, jaietara hurbil daitezene?

A.L.: Bada, haur, gazte eta helduentzako, denentzako ekitaldiak antolatu direla eta etortzen badira egunean zehar giro polita topatuko dutela. Anima daitezela gaueko giroa ere probatzera; haurrak aiton-amonen ardurapean utzita, parranda polita egingo dute. Azken batean, nire ustez, Kaletxikikoak Andoaingo jairik herrikoiak eta dibertigarrienak dira, Santa Krutz jaien baimenarekin.

Luxio Aranburu bandakidea eta Kandido izandakoa omenduko dute aurten

Gora Kaletxikiren omenaldia

Gora Kaletxiki Bandak omenaldia eskaini nahi dio Luxio Aranburu taldekideari. Bandaren sorreratik jo du saxofoia, eta nekaezin jarraitzen du. Mendizaletasunaren munduan ospe handikoa izan arren, musikagintzan ere itzal luzea egi-na daukan gizona da.

Bestalde, bere musika ibilbidea Andoaingo Musika Bandarekin lotua joan da klarinete jotzaile gisa, orain gutxi arte. 1953an sartu zen Bandan, eta hainbat zuzendarien aginduetara jo izan du.

Sentimendu askoko eguna izango da igandekoa Luxioarentzat, inondik ere. Eta ez bakarrik ekitaldiaren protagonista bihurtuko delako, baita ere Kaletxiki auzoak esanahi berezia daukalako bere bizitzan. 1936an Gabirian jaio arren,

oso txikitik Andoainera heldu zen familiarekin, eta Kaletxikiko auzoan hazi zen. Kaletxikitar sentitu izan da beti, eta 2011n Kandido izan zen Kaletxikiko jaietan.

KONTZERTUA BI ATALETAN

Lehenengoan, hiru pieza joko dituzte: Antzizar (Oiartzabal), Andoain (Fraga) eta Felicitas (Oiartzabal). Gora Kaletxiki Bandak eta Olagain txistulari Elkarrekin elkarrekin eskainiko dute kontzertuaren bigarren zatia.

Aldi berean, Gora Kaletxiki Bandako kideek **Vicente Ibañezek** eta **Gloritxu Ige-rategik** osatutako bikoteari esker ona adieraziko diete urtetan laguntza emategatik.





2017, ekaina | GEHIGARRI BEREZIA

Abesbatzak kantua herriari; herriak omenaldia abesbatzari

Alberto Agirre abesbatza azken hamarkadatan Andoaingo kultur eragile finkoena da. Hauen ibilbidea saritu nahi izan zuen Jai Batzordeak, 35 urte luzez herriarekiko eta kantuarekiko izan duen konpromisoa gorai patuz. **Olagain** txistulari bandarekin udaletxerako ibilbidea egin eta gero, balkoitik pregoia irakurtzeari ekin zioten. **Kontxi Arinek** egin zituen bozeramaile lanak, pregoiaren irakurketan: “Lehenik eta behin, Alberto Agirre abesbatza osatzen dugun kide guztien partetik gure esker zintzoena adierazi nahi dizuegu aurtengo San Juan festaren pregoia irakurtzeko aukera izateagatik. Jaiei hasiera emateko, gure modu naturalean egitea pentsatu dugu. Hau da, kantatuz”. Agur zaharra kantatzeari ekin zioten orduan.

Joxean Pascual zuzendariak hartu zuen hitza, jarraian. Kantua bizitzaren faro modura irudikatu zuen, bizitzeari zentzu osoa ematen dion elementuaren pare ipiniz: “Lagunok, eutsi gure arbasoen ohiturei. Gure zaharren bideak jarraitu, kantua izan baitzuten gidari, gu-

re herriaren aitzindari. Banatu, partekatu, zabaldu, maitatu, kantatu. Izan gizon-emakume, sendo, bizipozez bete bazterrak, kantua lagun, bizitzaz gozatu. Zer litzateke gure bidez amaren kantuaren ezean? Ama, zure kantuaz nire erraiak sendotu. Aita, zure kantuaz nire izatea laztandu. Euskal Herri maitea zure kantu goxoez erakusten digute bizitzaren parada. Ez galdu kantua, abesten ez duen herriak nortasun ahula. Ez galdu kantua, kantatzen ez duen pertsonak osasun eskasa. Ez galdu kantua, berak betetzen baitu gure ibilbidea zentzu, esanahi eta itxaropenez. Ez galdu inoiz kantua”. Txalo artean agurtu zituzten abesbatzako kideek Goikoplazan zeuden herritarrak. **Gora Kaletxikik** Goikoplazako taula gainean pieza ezberdinak eskaini zituen jarraian, Oiarzabal zuzendariaren esanetara.

Alberto Agirre abesbatzako kideei omenaldi gehiago eskaini zieten, jaietan zehar. Besteak beste, soka-dantzan eta Olagain txistularien emanaldi berezian. Pozik egoteko arrazoirik ez zaie falta.

ALBERTO AGIRRE ABESBATZARI

Olagain txistulari taldea eta Ion Beloki. Ekainak 25, igandea. Goikoplaza. Bertsokak: Ion Beloki.

Doinua: Itsasoari begira.

Bertso hauen bidez talde eder bat nahiko genuke omendu eta horregatik abesbatzari hitz xume hauek zuzendu. Alberto Agirre gure herrian askotan da nabarmendu, talde eder honek ekintza askotan gogotsu parte hartzen du. Zuek duzuen grina ta poza urte luzetan mantendu.

Hogeita hamabost urte badira jada sortu zinetela, jende euskaldun eta jatorra kantari talde itzela. Denok dakigu leku askotan arituak zaretela, eta horregatik zuen herriak eskertu nahi du horrela, txupinazoa zuek piztuaz merezi duzuen bezela.



Zuen gisara Albertok ere maitea zuen musika, eta herriari eskeini zion solfeo erakutsita. Maitasun horri heldu diozue ahotsa erabilia, belarri denak goxatuz eta azalak tente jarrita, dudarik gabe osatzen duzue talde anitz ta polita.



EGUNEROKOAREN JARRAIPIEN ZEHATZA WEBGUNEAN

AIURRI.eus



San Juan bezpera, aurtengo jaien hasiera

JAIETAKO LEHEN EGUNA INDARTSU ABIATU ZEN, ARRATSALDEAN HASI ETA GOIZALDERA ARTE HITZORDU UGARIZ GOZATZEKO AUKERAREKIN. GOIKOPLAZAKO GAU MAJIKOA ORDU TXIKIAK ARTE LUZATZEKO AUKERA IZAN ZEN NAFARROA PLAZAN.

EKAINAREN 23KO PROTAGONISTAK I PREGOIA, ALBERTO AGIRRE ABESBATZAREN ESKUTIK



Erraldoi eta buruhandien konpartsa, Olagain txistulariekin batera, jaien hasierako ekitaldian.



Udal ordezkariak soka-dantzan, ostiral iluntzean.



Ana Carrerek ohorezko aureskua dantzatu zion Alberto Agirre abesbatzako Jexus Mari Berazari.



Juanan Lazkano izan zen aurtengo kartel lehiaketaren irabazlea. Irudian, Esti Mujika zinegotziarekin eta Maider Arabalaza eta Sergio Vallejo gainerako sarituekin batera.



Udaletxeko balkoitik San Juan sua ikusteko aukera izan zuten herrikideak pozarren zeuden.



Agertokia musikariez eta kantariez gainezka, piztu berria zen San Juan suaren aurrean. Inguruan dozenaka herrikide jaiaz gozatzeko prest.



Agustin Leitza elkarteko danborrada, San Juan bezperan beti bezala.



Urki dantza taldeko kideen saioa ikusgarria izaten da, San Juan suaren ondoan egiten dutena.



Lehen toka txapelketa antolatuta zuten aurtengo jaietan, parte hartze txukunarekin.




Pedro Aizpuruaren Salbe Gorena San Martin elizan, hitzordu sailhestezina herrikide askorentzat.

San Juan eguna, ekitaldiz beterikoa

EKITALDIZ BETERIKOA IZAN ZEN ANDOAINGO JAIIETAKO EGUN HANDIA. SOCIEDAD ANDOAINARRA ELKARTEAREN DANBORRADA IZAN ZEN EGUNEKO PROTAGONISTA NAGUSIA, LEHEN ALDIZ IRTEN BAITZEN JENDAUERRERA.

EKAINAREN 24KO PROTAGONISTAK | ANDOAINARRA DANBORRADAREN ESTREINALDIA



Reincidentes, Gozategi, Gatibu, Laket eta DJ Bull aurtengo jaietako musika eskaintza.

Gauetako kontzertu indartsuen aldeko apustua egiten ari dira Andoainen azken urteotan, eta apustua emaitza onak ematen ari dela esan daiteke. Bereziki, larunbat gauean. Jendetza hurbildu zen Nafarroa plazara Gatibu ikustera, asko eta asko Buruntzaldeko eta Aiztondoko herrietatik gerturatu zen.



Gora Kaletxiki txarangako musikarien atzetik egin zuten Andoainarra elkartetik irteera.



Danborradako kideak lehen aldiz egin zuten irteeran.



Sonbrillarik zatarrenari saria jaso zuen taldea, argazkian. Arropa zintzilikatzeko ballatu zuten sonbrilla.



Auzoetako jai batzordeetako kideak, herri bazkariaren protagonista nagusiak. Udan auzo bakoitzeko festa bana ospatuko dute Kaletxikin, Karrikan, Etxeberrietan, Goiburun, Buruntzan eta Sorabillan.



Axerien kopurua nabarmen hazi da azken urteetan, belaunaldi berrietako ordezkaritzarekin. Egun berezia izaten da parte hartzaileentzat.



Gainerako axeriangandik aidentzeko Jon Iraola pleno aretoraino igo zen.



Ekitaldiaren amaiera aldera, axeriek herrikide bana ateratzen dute plazara dantza egitera.



Iturriaga, Alberdi, Arzallus anai-arrebak eta Lizaso, Mendiluze herrikidea abesten ari den bitartean.



Tio Teronen Semeak taldeak bikain uztartzen ditu euskal dantzak eta mundu zabalekoak.

Herriko taldeen erakustaldiak ekainaren 25ean

ARDO ETA PATATA TORTILLA PINTXOEN LEHEN DASTAKETAK HARRERA BEROA IZAN ZUEN HERRITARREN ARTEAN. ANTOLATZAILEAK POZARREN ZEUDEN LORTUTAKO ARRAKASTAREKIN.

EKAINAREN 25EKO PROTAGONISTAK | OLAGAIN TALDEA ETA GONBIDATUAK



Antolatzaileak zerbitzatzeko prest zeuden patata-tortilla pintxoaren aurrean.

Igande eguerdian, hiru euro ordainduta, herritarri lau ardo ezberdin eta patata tortilla pintxo aukera eskaintzen zitzaion. Gutxi balitz, Ardo kopa opari modura eraman zuten etxera. Eskaintzak erakarrita edo, dozenaka andoaindar hurbildu zen Santa Krutz erretiratuen elkarteak ipinitako postura. Lanez lepo ibili ziren hitzorduan laguntzaile aritu ziren elkarte gastronomikoetako bolondresak. Harrituta eta pozarren zegoen Eloy Artolazabal antolatzailea: “Ez genuen uste hainbeste jende bilduko zenik. 70 tortilla eskaini ditugu, horietatik 26 lehiaketara aurkeztu direnak. Lanez gainezka ibili gara une batzuetan. Hilabete da antolatzen hasi ginela, Andoaindarra elkartearekin batera. Ekitaldia gainerako elkarte gastronomikoei esker izan da posible. Bakoitzak bosna patata tortilla ekarri dituelako, horietatik bana txapelketarako izan da”.

Aurtengo patata tortilla lehiaketan, sei epaimahaikideek irabazlea zein zen oso garbi izan dutela adierazi zuen ekitaldiko antolatzaile nagusiak.



Patata tortilla lehiaketako epaimahaikideek Estitxu Espinek egindakoa saritu zuten.



Ardo dastaketa Bodegas Araicoren eskutik antolatzen.



Azelain dantza taldeko kideen saioa Gokoplazan. Erratzena ikusgarriena izan zen.



Mugaz taldekoek saioa eskaini zuten igande goizean, atzean Azelain taldekoak dantzan zeudela.



Olagain txistulari taldeak Andoaingo gonbidatuak igo zituen taula gainera. Argazkian, Triana elkarteko kideekin batera.



Batudaka feministako kideek erritmoa eta aldarrikapena biak batera landu zituzten Andoaingo kaleetan.



Triana taldeko kideek Lasarte-Oriako Zambra taldekoekin batera ikuskizuna eskaini zuten.



Soinuak musika eskolako kideek jaietako emanaldi berezia eskaini zuten Goikoplazan.



Funky taldeko kideen emanaldia Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.



Artisautza azokan beira lantzen zuen postuan ikusmin handia piztu zen.



Bakartxo & Joseba eta euren izena daraman eskolako kideek dantza erakustaldi aparta eskaini zuten.

Azken eguna gaztetxoei eta adinekoei eskainia

EKAINAREN 26KO PROTAGONISTAK | ADINEKOAK



Jaiak bere osotasunean normaltasun giroan igaro dira, baina euriaren ondorioz, hainbat ekitaldi tokiz aldatu behar izan zituzten: Igande gaueko dantza garaikideen erakustaldia, asteleheneko haur parkea eta Zumbaton nahiz Klaap eskolako erakustaldiak. Haur danborrada ere euripean igaro zen, euri gehien egin zuen unean hain justu. Eguraldia, ordea, epela zen. Azkenerako kalejira eta Goikoplazako emanaldia egin zituzten, euria une batzuetan gogotik egin arren. Sortutako eragozpen bakarrenetakoa izan da, eguraldiarena. Gainerakoan parte hartze handiarekin igaro dira jaiak. Igande iluntzean herrikide ugari zegoen Goikoplaza inguruetan jaietako azken hitzorduz gozatzen. Pirotekniazko kalejirarekin amaitu ziren jaiak, ehunka herrikidek zuzenean ikusi nahi izan zutena.



Zumbaton erakustaldia La Salle Berrozpe ikastetxeko jolastoki estalira eraman zuten.



Klaap dantza eskolako eta La Salle Berrozpeko ikasleek erakustaldia eskaini zuten.



Euripean egin zuten kalejira haur eta gaztetxoek. Eskerrak eguraldia epel samarra zela.



Scura Splats konpainiak Cavaltheos Foc pirotekniazko kalejirarekin amaiera eman zien aurtengo jaiak.





KIROL ALBISTEAK

Kirol hitzorduak San Juan jaietan

Jose Angel Sarasola herri kirol erakustaldiko aurkezleak ondo adierazi bezala, Andoain betidanik izan da herri kirolen aldeko herria. San Juan jaietako hitzordua finkoa da, urteak joan eta urteak etorri errepikatzen dena. Aurtengoan parte hartu zutenen artean, Leire Astiazaran eta Itxaso Onsalo trontzan eta aizkoran txukun aritu ziren. Gainerakoan, kirol probak ez dira falta izan aurtengo jaietan: Kros mistoa, Kontzejupekoa, 3x3 saskibalo lehiaketa, pala eta zesta txapelketak, bizikleta festa edota Gipuzkoako Txirrindularitza Itzulia.



Kros mistoan, ezker eskuin, Zabaleta-Purro irabazleak, Gurrutxaga-Gonzalez lehen andoaindarrak, Elizasu-Marma gazte onenak eta sari berezia eta txalo ugari jasotako Fernandez aita-alaba.



Kontzejupeko txapelketa, zesta partidak, 3x3 saskibalo saioak, Gipuzkoako Itzuliaren helmugaratzea... ez da kirol hitzordurik falta izan.



KIROL ALBISTEAK

Juanjo Arregi, Realeko entrenatzailea

Realeko emakumezkoen entrenatzailea izango da bi denboralditan (Urnieta, 51 urte). Añorgan, herriko futbol taldean eta Euskal Selektzioan ibilia, Gipuzko-

ako talde onenaren entrenatzaile izango da. Pixkanaka hormak eraisteko erronka du, Reala Espainiako Ligako sei onenen artean egonkortu.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Zergatik baiezkoa?

Erronka profesional erakargarria delako. Lehen Maila da, maila gorena. Euskal Selektzioan ere jokalaria bikainekin aritu izan naiz. Azpiegitura profesionala dauka Realak, eta horrek asko errazten du nire lana: medikuak, gimnasioa, belaze artifizialak, naturalak... Ni eta nire sendia Realekoak gara betidanik. Nire aitoren bazkide txartela 8 zenbakia zen, familia guztia oso lotuta egon gara Realera, eta jausia ematea erabaki dut. Nire iritsierak Oiartzunen maila galtzarekin egin du bat, eta horrek eman dit pena pixka bat, Gipuzkoako derbia jokatzeak aukerarik ez dugula izango hurrengo denboraldian.

Zortzigarren postuan bukatu du Realak azken denboraldia. Bi urterako kontratua sinatu duzu. Ze kirol erronka duzu?

Hazte prozesu batean dago taldea, jokalaria profesionalak direlako urte batzuetatik hona. Plantilaren %80 mantentzen da, eta horrek gure lana errazten egiten du. Lau eta hiru urte atzera, Realak Levante, Bartzelona eta Atletico Madrilen aurka hasi zituen Ligak, eta horrek zama astuna ekarri zion taldeari, buelta eman ezinda. Igor San Miguel entrenatzaile izan dela, azken bi sasoiotan, futbol polita egin du taldeak. 4. postua orain bi denboraldi, 8. bukatu berri dena, bi denboraldietan Koparako sailkatuta, eta Bartzelona ahaltzua urdurituta. Halako horma psikologiko eta fisikoak daude esan ditudan hiru talde horiekiko, eta horma horiek botatzen joan behar du-



gu, pixkanaka. Athletici Zubietan irabaztea, adibidez. Atletico Madrili ere irabazi zaio, eta gure asmoa Bartzelona eta Levante ere mendean hartu, eta horma horiak eraisten joatea da. 3 handi horien ingurura hurbilduz, sei onenen artean sartuko ginatke. Erronka zaila da, baina jokalariek bizkar gainean har dezaketen erronka, esijentzia da.

Sozialki ere pertsonai ezaguna izango zara. Prest al zaude?

Ez da erraza, ez. Gauza interesgarriak esateko erraztasun faltak arduratzen nau, komunikabideen presioak baino.

Etxean denak ados?

Bai noski. Etxetik apenas azalduko naiz aste egunetan, eta beraiek ordainduko dituzte zehar kalteak. Nik nire lana daukat (Donostiako Udalean lan ikuskatzailea da), eta arratsaldero Zubietara hurbilduko

naiz. Moldatuko naiz, noski, ze lan karga hau nik horrela erabakita etorri da. Uste dut bakarren bat poztu dela etxean, bertan ordu gutxi egingo ditudalako (emaztea eta bi alaba ditu).

Ze lan egiten du entrenatzaile batek? Jokalaria fitxatuko al dituzu, adibidez?

Beno, lan hori beste bi pertsonen egiten dute. Galdetzen digute, eta guk iritzia eman, erabakiak hartzeko. Beti ere sosen baitan, emakumeen futbol gero eta profesionalagoa baita. Bizkarrezurra Gipuzkoako jokalariek osatzen dute, Nahikari Garcia eta Nerea Izagirre, besteak beste, baina Madrili eta Bartzelonako batzuk ere baditugu, taldeari oreka, eskarmentu apur bat emate aldera. Gipuzkoako jokalaria zaintzen ditugu, ezinbestean. Oiartzun eta Eibarrera begiratzen dugu, baina Bigarren Mai-

lan daude, eta hori muga bat da guretzat. Athletic ere ehi-zan dabil, gu bezala. Harrobi talde bat sortuko du klubak, gazteak-eta trebatzen joan daitezten, eta pixkanaka lehen taldea elikatzen joan daitezten.

Entrenatzaileak, egun, aberastasun taktikoagatik baino, aldagelaketako kudeaketarengatik baloratzen dira...

Taktika eta teknika funtsezkoak dira niretzat. Eta biak elkarren osagai dira. Teknika, taktika, prestakuntza fisikoa eta burukoa, eta aldagelako kudeaketa, horiek landu behar dira. 10 hilabete eta erdian beti sortzen dira berekoikeriak, jokatzen dutenak pozik daudelako, baina jokatzen ez dutenak ez. Minutuen kudeaketa egin behar da, agian egokienak ez diren jokalaria erabili partidaren batean, taldearen hobe beharrez...

Ze joko egingo du Realak? Zergatik joan behar da Zubietara Reala ikustera?

Emakumezkoen futbola gizonetzkoena bezalakoa da. Alde bakarra jokoaren azkartasuna da, baina oso erakargarria. Bestalde, gizonetzkoen futbolean dagoen malizia falta da emakumeen arloan, baina hori gustuko dut. Puntutxo bat eduki behar da, baina dutenarekin konforme.

Urnietarra zarela esan dute han eta hemen, baina berez Donostian jaioa zara...

Bai, baina 23 urte daramatzat dagoeneko Urnietan. Hemen beste inon baino urte gehiago egin dut, nire alabak bertakoak dira, eta ni, noski, urnietarra sentitzen naiz.

Lizeagari omenaldia Zumaian



Joan zen asteburuan Zumaiko mendi lasterketan Urnietako Jokin Lizeagaren ibilbidea omendu zuten. Esker onez, eta lesioetatik erabat osatu gabe egon arren, Flysch mendi maratoni erdian parte hartu zuen. Bere onen ez bazegoen ere, aurrealdean ibili zen. Lasterketa-aren ibilbidea ikusgarria da, irudian ikus daitekeenez.

UKE pilota taldea

GOIKOETXEA 22-12 URRA Ekialde Txapelketa. Finala.

Kadeteetako lehen mailako lau eta erdiko txapelketa, Goikoetxea tolosarraren aurka finala jokatu zuen Michelingo pilotalekuan. Aurkaria indartsuago izan zen, baina hala eta guztiz ere urnietarra txapelketa osoan zehar maila onean aritu da. Sakean ondo ibili zen, baina aurkariak indartsu erantzuten zuen.

IMANOL-AIZKORBE 22 SANTAMARIA-YANIZ 7 Lakua txapelketa.

Imanol Odriozola urnietarrek finala jokatuko du, Aizkorbe goizuetarrarekin batera Santamaria-Yaniz nafar bikotea gainditu eta gero. Imanolek partida bikaina jokatu zuen, partidaren animatzaile bihurtuz.

Finala larunbat honetan izango da Gasteizen, arratsaldeko 16:00tan hasita.

FINALA Aizkorbe-Odriozola Uribe-Etxeberria.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Batzar Buzkuna

INIS TORRE

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Uztailaren 16

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etbez etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

EKAINAREN 30ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Jaiak

Andoain

San Pedro jaiak Kaletxikin.

■ **Ekainak 29, osteguna:**

18:30 Karate erakustaldia Berrozpen.

19:30 Txosna irekiera eta pintxopotea DJ Pintxorekin.

20:30 Loinatz abesbatza Berrozpeko kaperan.

■ **Ekainak 30, ostirala:**

19:00 Kandida eta bere txikitxuei ongietorria. Ondoren buruhandiak.

20:00 Oroith abesbatza Berrozpeko kaperan.

21:00 Bokatafaria.

21:45 Bakarriketak: Xavier Deltell, Bocabeats.

22:30 Mus txapelketa Buruntzan.

23:30 Disko Rock Remember eta karaokea.

■ **Uztailak 1, larunbata:**

10:00 Eskupilota topaketa Goikoplazan.

10:00 Plater tiraketa harrobian.

12:00 Sagardo txapelketa, haur parkea.

17:30 Haur parkea, buruhandiak.

18:00 Herri kirol erakustaldia.

19:00 Pintxopotea, The WC Grooves taldea.

20:00 Ontza elkartean afaria.

22:15 Danborrada.

23:00 Berbena Camp.

01:00 Oilasko hotza txanpainarekin, Ontza elkarrean. Zezensuzkoa.

01:30 DJ Nemux eta apar festa.

■ **Uztailak 2, igandea**

10:00 Diana.

10:00 Mendi lasterketa eta martxa ibiltaria.

12:00 Meza Berrozpeko kaperan.

12:35 Soka-dantza.

13:15 Gora Kaletxikiren emeraldia, Luxio Aranbururi omenaldia.

14:00 Bazkari herrikoa.

16:30 Gora Kaletxiki zuzenean.

17:00 Futbol partida.

18:00 Herri txiki festa: Poniak, sokamuturra.

19:30 Sardin jatea. DJ Pintxo eta dantzaldian zehar Kandida eta txikitxuen agurra.

Farmaziak

Andoain

■ **Ansa:** Ondarreta, 8.

Urnietan

■ **Etxebarría** (Hernani).
Uztailak 1-2.

Odol-emaileak

Urnietan

■ Anbulatorio zaharrean.
18:30-20:30.
Uztailak 3, astelehena.

Zikloa

Urnietan

■ Gay eta lesbianen nazioarteko egunaren harira.

Ekainak 29, osteguna:

18:30 Chrysallisen hitzaldia Lekaion, transexualitate hizpide.

Lehiaketa

Urnietan

■ 2017ko Sanmielak iragartzeko kartel lehiaketa. DIN A3 tamainan egin behar da. Oinarriak: Urnietan.eus. Sari bakarra: 450 euro. Epea: Uztailak 7.

Ikastaroak

Andoain

■ **Txertatu merkatuan** ikastaroa: Prestakuntza margoketa industrial, bizikleta konponketa eta abar. 18-22 urte arteko langabetuentzat. Info: 943 30 42 21.


Dantza

Andoain

■ **Dantzaz** konpainiak, "Youth" ikuskizunaren aurre estreinaldia eskainiko du. Wubjke Kuindersma koreografoak egindako pieza aurkeztuko dute. 19:30 Doan. Ekainak 30, ostirala.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Lide Sobrado Lizaribarrek 8 urte bete ditu ekainaren 29an. Zorionak etxe-koen eta Lukaren partetik!

ANDOAIN

ZORIONAK



Maialen 10 urteborobil bete-ko ditu uztailaren 16an eta gainera udalekutan! Maite zaitugu. Etxekoak.

ANDOAIN


ZORIONAK



Manex Mendizabal Ezeizak 18 urte bete-ko ditu uztailaren 7an. Muxu handia. Amona Miren eta aitona Esteban.

ANDOAIN

ZORIONAK



Uztailaren 5ean 6 urte!! Oso ondo pasa **Libe** eta **Julen**. Jarrai ezazue hain lagun onak izaten! Etxekoak.

ANDOAIN

Bigarren eskuko objektuen azoka, Goikoplazan

"Zaharrak Berrituz" azokaren edizio berria ospatuko dute larunbat honetan, Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin, Ondarretan egingo lukete. Berrogei postu egongo direla aurreratu dute: "Azoka honen bitartez objektuak birziklatuko dira, euren bizi iraupena luzatuz".

Uztailak 1, larunbata.
10:00-14:00. Goikoplaza.



Aurtengoan Goikoplazan egingo dute.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: UZTAILAK 6, OSTEGUNA

Andoaingo gudurako hogeit hamar lagun behar dituzte



Larramendi Bazkuntetik adierazi dutenez, oraindik gutxienez 20 bat lagun falta zaiela aurtengo **Andoaingo gudua** gogoratuko duen ikuskizunerako, datorren irailaren 16an egingo dena, larunbatarekin, herriko kaleetan barrena. Zehazki honakoak falta dituzte:

• 5 bat fusilari ingeles edo eskoziar, ingelesez esaldi labur pare bat esateko gauza direnak.

• 15 bat fusilari karlista.

Antolatzaileek azken deialdia zuzentzen diete andoaindarrei ikuskizuneari parte har dezaten, falta diren 20 lagun horien gabe zaila izango baita gertakari historiko honen gainekoa antolatzeko. Izen emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero deitu 656-782-521 zenbakira, edota idatzi bazkuna@larramendi.org helbidera.

